

Munduko Gazte Korua Euskadin




World
Youth
Choir



Elkarrizketa / entrevista
Javier Busto

«Si este país ha sido algo, ha sido un país coral, y estamos perdiendo esa tradición»





aurkibidea sumario sommaire

kantuz 91

Argitalpena/Edita:

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak / Confederación de Coros del País Vasco

Helbidea / Dirección:

234 postakutxatila. Plaza Zaharra, 1-2 solairua (Idiakez Jauregia). 20400 Tolosa (Gipuzkoa).

Telefonoa / Teléfono:

943 670 013

E-posta/E-mail:

koralakeae@euskalnet.net

Web: www.koralakeae.com

Babeslea/Patrocinaria:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Kultura Ministerioa/Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, Ministerio de Cultura

Koordinatzailea / Coordinadora:

Nerea Pikabea Amundarain

Diseinua / Diseño:

Iñigo Puerta

Kolaboratzaileak / Colaboradores:

Amaia Goikoetxea Orbegozo, Dabid Giménez (argazkiak), Rennier Piñero, EITB prentsa

Frantseseko itzultzailea / Traductrice:

Dominique Lambert

Beste itzulpenak/Otras traducciones:

Amaia Goikoetxea Orbegozo, Amaia Garmendia

Inprimategia / Imprenta:

Gertu Inprimategia. Oñati

Babesleak / Patrocinadores:



- 3 Editorialia
- 4-7 Arabatxoko Haur Abesbatzen Eguna / Día Coral Infantil de Arabatxo.
- 8 Leioa Kantika Korala-Vasco Negreiros opera
- 9 Bizkaiko Abesbatzen Eguna / Día Coral de Bizkaia
- 10 Kirikiño abesbatzak 25 urte
- 11 Altxaga eta Lagun Zaharrak abesbatzen bidaiak / Viajes de Altxaga y Lagun Zaharrak
- 13 Antxieta Txiki eta Vocalia Parisen
- 14-15 Gipuzkoako Haur Koruen IV. Topaketa / IV Taller de Coros Infantiles de Gipuzkoa
- 17 Ganbara Txiki Torreviejan garaile / Ganbara Txiki ganador en Torrevieja
- 18 Iparraldeko Federazioaren Batzar Nagusiak / Assemblées de la Fédération de Iparralde
- 19 40 años Ejea de los Caballeros 40 urte
- 20-23 Entrevista Javi Busto elkarrizketa
- 24-27 Munduko Gazte Korua Euskal Herrian / El Coro Mundial de Jóvenes en el País Vasco
- 28-33 Reportaje Oh Happy Day erreportajea
- 34-35 Laburrak / Breves
- 36-37 Editorialetako albistekak / Novedades editoriales
- 38 Irakurlearen txokoa/Rincón del lector
- 39 Ekintzen egutegia / Calendario de actividades



harpidetza suscripción abonnement

Jaso ezazu Kantuz etxean!

¡Reciba el Kantuz en casa!

Recevez chez-vous le Kantuz!


-Zenbaki bakarra/Ejemplar suelto/Un número:

2,5 €

-Zenbaki bakarra (atzerria)/Un número (étranger): 3,5 €

-Urteko harpidetza (3 zenbaki)/Suscripción anual (3 números)/ Abonnement annuel (3 numéros): 7 €

-Urteko harpidetza (atzerria)/Suscripción anual (extranjero)/Abonnement annuel (étranger): 10 €



Amaia Garmendia EAEko presidentea

Kantuzen lagunok, Aldizkariaren zenbaki berri bat aurkezten dizuegu. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen murrizketen ondorioz, aurtan Kantuzen hiru zenbaki bakarrik eskaini ahal dizkizuegu, orain arteko lauen orde. Etorkizunean berriro urtean lau zenbaki ateratzera itzultzea espero dugu.

Datozen hilabeteetan ekintza pila bat egongo da, baina horien artean honako hau nabarmendu nahiko genuke: Munduko Gazte Koruak (World Youth Choir) uztailearen 20an Donostiako Kursaalaren eskainiko duen emanaldia. Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatu du kontzertu hori. Gainera, WYC abesbatzak entsegu orokor ireki bat eskainiko du egun horretan goizean, zuzendariei, abeslariari eta koru zaleei zuzendua.

Nazioarteko federazioekin –IFCM (Musika Koralarren Nazioarteko Federazioa) eta Europa Cantat erakundeekin– lankidetzeta eta gure presentzia indartu; horixe da oraingo zuzendaritza taldearen lehentasunetako bat. Ahalegin horren lehen ondorioetako bat WYC koruak Euskadira egingo duen bisita da. Ekitaldi bikain horri buruz aldizkariaren erdialdean prestatu dugun erreportajea irakurtzera gonbidatzen zaituztegu.

Ildo berean, EAEk Abesbatza Erakundearen eta Federazioen I. Bilerara sustatu du; bilera hori Madrilan egin zen 2010eko maiatzaren 8an. Federazioen arteko harremana eta lankidetzeta sustatu nahi dira. Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak honako erakunde hauekin batera antolatu du bilera: Kataluniako Abesbatza Entitatearen Federazioa, Madrilgo Coro de Voces Graves abesbatza, VokalArs Elkarteak eta Madrilgo Carlos III Unibertsitatea.

Beste berrikuntza bat ere badago; aurtan Zuzendaritza Ikastaroa Donostian egingo da, Munduko Gazte Koruaren kontzertua dela-eta; emanaldi honetarako amaituko da ikastaroa. EAEko irakasle taldeaz gain, aurtan Georg Grün irakasle alemanak maila gorenera dagozkion eskolak emango ditu.

Gainerako gaien artean, tartea eskaini diogun ETBko "Oh Happy Day!" saioari; oihartzun handia izan du abesbatzen munduan eta ika-mikak ere sortu ditu. Lehiaketan sartuta dauden iritziak eta esperientziak erakutsi nahi izan ditu Kantuzek.

EAEtik eskerrak eman nahi dizkiegu Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostia 2016-ri eman duten laguntza bereziagatik. Izan ere, laguntza horri esker World Youth Choir abesbatzako 80 gazte Euskal Herrian izango dira lehen aldiz.

Uztailearen 20an denok KURSAALen elkar ikusiko dugulakoan!

Amaia Garmendia Presidente de E.A.E.

Amigos y amigas de Kantuz, Os presentamos un nuevo número de la revista. Este año, y debido al recorte de las subvenciones del Gobierno Vasco, sólo podemos ofrecer tres números de Kantuz, en vez de los cuatro habituales. Esperemos que en el futuro podamos volver a los cuatro ejemplares anuales.

Entre todas las actividades, que son muchas, para los próximos meses, queremos destacar la presencia en el Kursaal donostiarra el 20 de julio del Coro Juvenil Mundial (World Youth Choir), en un concierto organizado por Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak. El WYC ofrecerá también ese día por la mañana un ensayo general abierto a directores, cantores y aficionados.

Una de las prioridades que nos marcamos el equipo directivo actual fue la de reforzar nuestra presencia y colaboración con las federaciones internacionales, IFCM (Federación Internacional de Música Coral) y Europa Cantat. Un primer fruto de este esfuerzo es la visita del WYC a Euskadi. Os invitamos a leer el amplio dossier central que hemos preparado sobre este evento excepcional.


En este mismo sentido, EAE ha auspiciado la I Reunión de Federaciones e Instituciones Corales, que ha tenido lugar en Madrid el día 8 de mayo de 2010, con el fin de promover intercambios y colaboraciones entre las Federaciones. Esta iniciativa ha sido convocada conjuntamente con la Federación Catalana de Entidades Corales, el Coro de Voces Graves de Madrid, la Asociación VokalArs y la Universidad Carlos III de Madrid.

Otra de las novedades es que el Curso de Dirección se traslada este año a San Sebastián, a causa precisamente del concierto del Coro Juvenil Mundial, que servirá de clausura del curso. Además del cuadro de profesores de EAE, este año el profesor alemán Georg Grün impartirá el nivel avanzado.

En otro orden de cosas, dedicamos atención al programa de ETB "Oh Happy Day!", que ha tenido amplia repercusión en el mundo coral, no exenta a veces de polémica. Kantuz ha querido reflejar las diferentes opiniones y experiencias de los implicados en este concurso.

Queremos desde EAE agradecer al Gobierno Vasco, Diputación de Gipuzkoa y Donostia 2016, por su colaboración especial que ha hecho posible la presencia por primera vez de los 80 jóvenes del World Youth Choir en el País Vasco.

¡Esperamos veros a todos el día 20 de julio en el KURSAAL!



130 ahots batera Abesbatza Egunean

Bi asteburu oso lanean eman zituzten Josu Elberdinekin eta Josep Vila Joverrekin

ARABATXO Arabako Haur Abesbatzen Federazioko abesbatzetako kantariak otsaila eta martxo bitartean elkartu ziren, eta erreperitorio zail bat prestatu zuten Josu Elberdin eta Josep Vila Jover zuzendari gonbidatuen laguntzarekin. Martxoaren 14an Gasteizko Jesus Guridi Musika Kontserbatorioan eskainitako kontzertuan erakutsi zuten abesbatzek egindako lana.

Badira hamalau urte Haur Abesbatzen Eguna ospatzen dela Arabako hiriburuan. Federatuta dauden Arabako haur abesbatzak elkartzeko dira. Sortu zenetik, Abesbatzen Eguna formato asko izan ditu eta, Federazio horren beharretara eta

helburuetara egokitzen joan da.

2002tik aurrera, lau egunetan egiten da Haur Abesbatzen Eguna; egun horietan parte hartzen duten abesbatzetako abeslariak taldeka lan egiten dute gonbidatutako zuzendariarekin. Lan egiteko modu eta erreperitorio desberdinak, eta beraz, musika ulertzeko modu berriak ikasten dituzte zuzendari horiekin.

Aurten otsaileko eta martxoaren bi asteburutan elkartu dira. Hor egindako lana kontzertu batean erakutsi zuten eskolania guztiak; emanaldia martxoaren 14an izan zen Gasteizko Jesus Guridi Musika Kontserbatorioari areto nagusian.

Eskolania hauek parte hartu zuten: Doinuz Blai, Kanta-Kantari, Olabide, Papargorri, Santa Maria-Zintzarri, Samaniego eta Udaberria.

Elberdinen obra baten estreinaldia

Haur abesbatzen musikan aditu diren bi zuzendariarekin kantatu eta lan egin ahal izan

zuten lau egun horietan 130 abeslariak. Horrez gainera, ARABATXOko beste eskolaniako kideekin ordu asko eman zituzten. Abeslari txikiak Josu Elberdin



pasaiatarrarekin lan egin zuten bitartean, handienak Josep Vila Jover katalanarekin aritu ziren.

Barriako aterpetxean elkartu eta bi zuzendari gonbidatuek aukeratutako erreperitorioa landu zuten; aurrez erreperitorio hori ARABATXOko zuzendariarekin adostu zuten. Aterpetxean egon ziren denboran, entsaiatzeko eta elkar ezagutzeko denbora

izan zuten parte-hartzaileek.

Josu Elberdinek Haur Abesbatzen Egunerako enkaraguz egindako *Malakatumba* obra estreinatu zuten kontzertuaren egunean.

Heziketa osoa

ARABATXOren bitartez haur abesbatzen helburua, bereziki Haur Abesbatzen Egunean, musika- eta pedagogia-garapenean abeslari

laguntzea da. Musikaz gozatzeko aukera eskaintzeaz gain, musikaren alderdi desberdinak ikasteko eta ezagutzeko bidea ematen du.

Hala ere, ez da ahaztu behar abesbatzak tresna sozial gisa duen garrantzia; pertsona gisa garatzeko aukera ematen die abeslariari koruak. Kantariaren heziketa osoan sinesten du federazioak, eta hala, hainbat printzipio sustatzen dira: ardura, errespetua, integrazioa, lankidetzatza, talde lana eta giza-talde bateko kide gisa norbanakoaren garrantzia.

Federazioko abesbatzek taldean egiten dituzten jarduerak sustatu eta koordinatu dira. Gainera, abesbatza edota instituzio gisa dituzten zereginetan aholkua eman eta lagundu egin nahi zaie. Abesbatza gehiago sortzen ere lagundu nahi du federazioak.

Azkenik, euskal kulturaren balio tradizionalak ikasi eta sustatu nahi dira, batez ere kantu koralarari dagokionez. Neska-mutikoen heziketa osoan lagundu, gurasoekin eta irakasleekin batera.

Aurre eskolanien eguna

Federazioko kantari txikiak euren Abesbatzen Eguna egin zuten joan den maiatzaren 23an Jesus Guridi kontserbatorioan. Kantuak prestatu eta landu ondoren, emanaldi bat eskaini zuten Arabatxoko aurre eskolanien.

130 voces unidas en el Día Coral

Se concentraron durante dos fines de semana con Josu Elberdin y Josep Vila Jover

Entre febrero y marzo las escolanías de la Federación de Coros Infantiles de Álava ARABATXO unieron sus voces para preparar un exigente repertorio con la ayuda de Josu Elberdin y Josep Vila Jover como directores invitados. Ese trabajo culminó con un concierto el día 14 de marzo en el Conservatorio de Música Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz.

Hace ya catorce años que se celebra el Día Coral Infantil en la capital alavesa. Consiste en un encuentro de todos los coros infantiles de Álava federados. A lo largo de

su historia el Día Coral ha tenido diferentes formatos y ha ido adaptándose a las necesidades y objetivos de esa Federación.

A partir del año 2002, el Día Coral Infantil consta de cuatro días en los que los y las componentes de todos los coros participantes trabajan por grupos con los directores invitados. Con ellos los coralistas de la Federación aprenden nuevas formas de trabajo, repertorios diferentes y, por tanto, nuevas formas de entender la música.

Este año esas concentraciones se llevaron a cabo durante dos fines de semana de febrero y de marzo. Todas las escolanías mostraron

el trabajo realizado en un concierto, que se celebró el día 14 de marzo al mediodía en Vitoria-Gasteiz, en el aula magna del Conservatorio de Música Jesús Guridi.

Éstas son las escolanías que participaron: Doinuz Blai, Kanta-Kantari, Olabide, Papargorri, Santa Maria-Zintzarri, Samaniego y Udaberria.

Estreno de una obra de Elberdin

Durante estos cuatro días, los y las 130 coralistas además de poder cantar y trabajar con dos directores especializados en música coral infantil, convivieron con los y las

participantes del resto de escolanías de ARABATXO. Los coralistas más pequeños trabajaron con el pasaiatarra Josu Elberdin, mientras que los más mayores lo hicieron con el catalán Josep Vila Jover.

Concentrados en el albergue de Barriá, prepararon el repertorio escogido por los directores invitados y consensuado con las directoras y directores de Arabatxo. En el albergue los y las participantes además de ensayar también tuvieron tiempo de conocerse.

El día del concierto se estrenó la obra *Malakatumba* compuesta por Josu Elberdin, una obra encargada con motivo del Día

Coral Infantil.

Educación integral

El principal objetivo de los coros infantiles a través de ARABATXO, y especialmente en el Día Coral Infantil, es la ayuda para un desarrollo musical y pedagógico de los coralistas, que además de disfrutar de la música, permite aprender y conocer diferentes aspectos de la misma.

Sin embargo, no hay que olvidar la importancia del coro como instrumento social, que permite a sus componentes desarrollarse como personas. La federación cree en la


educación integral de los y las componentes y de esta manera, se fomenta la responsabilidad, el respeto, la integración, la colaboración, el trabajo en grupo, así como la importancia del individuo como componente de un grupo humano.

Se pretende impulsar y coordinar las actividades de tipo colectivo de las entidades federadas. Además, se quiere asesorarlas y orientarlas en todos los aspectos relativos a su vida coral e institucional. También se busca promover y ayudar la creación de nuevas entidades corales.

Por último, se pretende iniciar y fomentar el enriquecimiento de los valores tradicionales de la cultura vasca, sobre todo en lo que a canto coral se refiere. Colaborar en la educación integral de los niños y niñas en estrecha relación con madres, padres y personal educador.

Día Coral de las pre escolanías

Los cantores más pequeños de la Federación celebraron su Día Coral el 23 de mayo en el conservatorio Jesús Guridi. Tras la preparación de las obras, las pre escolanías de Arabatxo ofrecieron un concierto.



Estitxu Txurruka, Gasteizko Olabide abesbatzaren zuzendaria

«Gazteentzako erakargarriagoa den erreperitorioa egin dute»

Olabide ikastolako abesbatza da. Berrogeita hamar kantarik osatzen dute. Abeslariak musika lengoia egiten dute ikastolan bertan. Gero musika tresna egin nahi duenak kanpoan egin dezake.

Nola moldatzen zarete nerabezeroan dauden abeslariak txikiagoekin uztartzeko?

Abesbatzan oreka bilatu behar duzu, txikien eta gazteen gustukoa izango den musika egin beharra dago. Nerabezeroan abesbatzan jarraitzen badute gustuko dutelako da. Nabaritzen dute inplikazioa. Kontzentrazio honetan gure koruko nagusienek aukera izan dute abesbatzan landu ezin dugun erreperitorioa egiteko; zailagoa da eta hemen gainera euren adinekoekin aritu dira. Gazteentzako erakargarriagoa den erreperitorioa egin


dute.

Haur abesbatza batetik helduen talde batera pasatzea ez al da jauzi handia?

Adin zaila da. Bat-batean nagusi egiten dira eta ordurarte egin ez dutena egiteko gaitasuna dute. Gainera, abesbatza batek konpromiso eta lan handia eskatzen ditu. Kontzertu bat emateko bi entsaiorekin ez da nahikoa. Horrek atzera egin arazten die askotan. Zer egin daitezkeen erakartzeko? Bada, beraiei gehien gustatzen zaizkien gauzak egiten saiatu: elkartrukeak, irteerak, etab. Nire abesbatzakoak oso baikorrak dira, beti laguntzeko prest daude.

Beraz, oreka lortu behar da?

Bai. Abesbatzaren beste aspektua taldearen izaera da. Normalean euren adineko jendearrekin ibiltzen ohituta daude, baina abesbatza batean adin desberdinetakoekin konpontzen ikasi behar dute. Hori aberasgarria da eta beste koadrila batzuk sortzen dira. Erreperitorio bat edo bestea landu dezakezu daukazun koruaren arabera.



gente joven.
Pasar de un coro infantil a un coro de adultos... ¿no cree que hay mucha diferencia?

¿no cree que hay mucha diferencia?

Es una edad difícil. De repente se hacen mayores y tienen capacidad para hacer lo que no han hecho hasta entonces. Además, un coro exige compromiso y mucho trabajo. Para ofrecer un concierto con dos ensayos no es suficiente. Eso les hace retroceder muchas veces. ¿Qué se puede hacer para atraerlos? Pues, intentar hacer cosas que más les gusten: intercambios, salidas, etc. Los de mi coro son muy positivos, siempre están dispuestos para colaborar.

En definitiva, ¿hay que conseguir un equilibrio?

Sí. Otro aspecto del coro es su carácter. Generalmente están acostumbrados a funcionar con gente de su edad, pero en un coro tienen que arreglarse con personas de diferentes edades. Eso es enriquecedor y se crean otras cuadrillas. Puedes trabajar un repertorio u otro en función del coro que tengas.

Mikel Medrano, Udaberria abesbatzako abeslaria

«Mutilek diote korua nesken gauza dela»

Haur Abesbatzen Egunean parte hartu du Nagore Alanguak zuzentzen duen abesbatzarekin. Hiruzpalau urte daramatza zeharkako flauta ikasten. Ahots teknikako eskolak hartzen ditu taldean.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Elkarrekin eman ditugun asteburuetan jende askorekin egon gara eta horrek beste koruetan lagunak egiteko aukera ematen dizu. Batzuk lehendik ezagutzen nituen. Beharbada entsaio orduak gehiegi izan dira, baina ahalegin horren ondorioz gero dena ongi atera zaigu. Erreperitorio mugitua egin dugu; esate baterako, bateria sartu dute eta hori oso polita izan da.

Zer gertatzen da mutilekin koruetan?

Batzutan mutilek diote korua nesken gauza dela, baina nire ustez hori ez da horrela. Guztientzako jarduera bat da. Balleatan ere neskak eta mutilak ibiltzen dira. Gertatzen dena da mutilek kirola egiten dutela gehiago.



Mikel Medrano, coralista de la escolanía Udaberria

«Los chicos comentan que el coro es cosa de chicas»

Ha participado en el Día Coral Infantil con el coro que dirige Nagore Alangua. Lleva unos tres o cuatro años estudiando flauta travesera. Recibe clases de técnica vocal en grupo.

¿Qué es lo que más te ha gustado?

El las concentraciones, hemos estado con mucha gente y te da la posibilidad de hacer amigos en otros coros. A algunos ya les conocía de antes. Quizá han sido demasiadas horas de ensayo, pero gracias a ese esfuerzo nos ha salido todo bien. Hemos cantado un repertorio con movimiento: por ejemplo, se ha introducido la batería y ha sido muy bonito.

¿Qué sucede con los chicos en los coros?

A veces los chicos comentan que el coro es cosa de chicas, pero yo creo que eso no es así. Es una actividad para todos. En el ballet también hay chicas y chicos. Lo que pasa que los chicos suelen hacer más deporte.

Josep Vila Jover, zuzendari gonbidatua

«Gazteak erronkekin motibatu behar dira»

Vallès Orientaleko Cor de Cambra eta Cor Infantil Amics de la Unió abesbatzen zuzendaria da gaur egun. Hainbat sari lortu ditu abesbatza horiekin kantu koraleko lehiaketetan eta nazioarteko jaialdi ugarian parte hartu du. 2009az geroztik, Granollerseko Cor de Cambra abesbatzaren zuzendaria da; talde profesional horrek hiri horretako Auditorio Antzokian du egoitza. Gonbidatutako zuzendari gisa aritu da 14 eta 18 urte bitarteko gazte arabarrekin.

Ze balorazio egiten duzu gazteekin egin duzun lanaz?

Oso gustura egon naiz. Beste zuzendari batzuekin lan egiteak asko aberasten du abesbatza, gauzak egiteko modu berriak ikusteko aukera ematen dizu: ez hobeak ez okerragoak, desberdinak besterik gabe. Obra berriak ezagutzeko aukera ematen du, zuzendari horiek lana bideratzeko dituzten estiloak eta moduak ezagutzeko aukera. Oraingoan niri tokatu zait gonbidatutako zuzendari gisa etortzea. Nik asko gozatu dut, neska-mutikoei lana serioitasun handiz hartu


baitute. Ondo elkar ulertu gara abeslariarekin.

Nola erakar daiteke jende gaztea koru mundura?

Oso zaila da. Ondo lan egiten saiatu behar da, interesgarriak izan daitezkeen proposamenak eman, maila eta emaitza batzuk lor ditzaketan jarduerak eskaini. Talde horien aurrean jarriko diren benetako profesional onak behar ditugu, motibatzeko gai izango diren pertsonak. Alde ludikoa ondo dago, baina nik uste dut erronkekin motibatu behar direla: kalitatea, konpromisoa, birak, diskoak, lehiaketak... Nik dudan arazoa da, koruaz gain beste gauza pila bat egiten dutela: eskolako lanak, kirola, ingelesa...

Erreperitorio erakargarriago batek lagundu diezaiekela uste duzu?

Erreperitorio hori badago. Moldaketa asko dago. Kontzertu honetan musika modernoa sartu dugu. Hori egiten ari gara. Baliabide hori dagoeneko erabiltzen ari gara. Baina, horrek ezin du izan baliabide bakarra, hau da, pop eta Beatles kantatu, jazz... azaldu behar zaie a capella egiten den musika, erlijiosoa, garaikidea ere aberasgarria dela; bi gauzak estimatzen jakin behar dute, hori lortzeko gai izan behar dugu.



los coralistas.
¿Cómo se puede atraer a la gente joven a la música coral?

«A los jóvenes hay que motivarles con retos»

Actualmente es director del Cor de Cambra del Vallès Oriental y del Cor Infantil Amics de la Unió, formaciones con las que ha conseguido varios premios en concursos de canto coral y ha participado en numerosos festivales internacionales. Desde 2009 es también director del Cor de Cambra de Granollers, formación profesional residente en el Teatro Auditorio de la misma ciudad. Ha ejercido como director invitado con jóvenes alaveses de entre 14 y 18 años.

¿Qué valoración hace del trabajo realizado con los jóvenes?

He estado muy contento. Trabajar con otros directores enriquece mucho al coro, permite ver nuevas maneras de hacer, ni mejores ni peores, simplemente diferentes. Permite conocer obras nuevas, estilos y formas de enfocar el trabajo de esos directores. En esta ocasión me ha tocado a mí venir como director invitado. Yo he disfrutado mucho porque los chicos se han tomado el trabajo muy en serio. Nos hemos entendido bien con

Es muy difícil. Hay que intentar trabajar bien, darles propuestas que sean interesantes, darles nivel y actividades en las que puedan conseguir unos resultados. Necesitamos que haya auténticos buenos profesionales delante de estos grupos, personas que sean capaces de motivar. Está bien la parte lúdica, pero yo creo que hay que motivarles con retos: la calidad, el compromiso, las giras, los discos, los concursos... El problema que tengo es que además de coro hacen un montón de cosas: deberes, deporte, inglés...

¿Cree que un repertorio más atractivo para ellos podría ayudar?

Ya lo hay. Hay muchos arreglos. En este concierto ya hemos incorporado música moderna. Esto ya se está haciendo. Es un recurso que se está utilizando. Esto no puede ser el único recurso, es decir, cantar pop y Beatles, jazz... hay que explicar que hacer música a capella, religiosa, contemporánea... también es enriquecedor y hay que ser capaz de que sepan apreciar las dos cosas.

Amaia Ormazabal, Kanta Kantari abesbatzako abeslaria

«Asko ikasi dugu zuzendariekin»

Haur Abesbatzen Egunean parte hartu du Silvia Hernandezek zuzentzen duen abesbatzarekin. Txikia zenetik piano ikasketak egiten ari da.

Zer nolako esperientzia izan da?

Oso gustura ibili gara. Zuzendariak oso jatorrak izan dira eta asko ikasi dugu beraiekin. Kontzentratuta egon ginen asteburuan, egunez entsaioak eta gauean jolasak egiten egon ginen elkarrekin; denbora asko eman dugu hizketan. Entsaio orduak asko izan dira, baina azkenean dena ondo atera da. Kanta batzuk konplexuak ziren eta horregatik ordu batzuk sartu beharra zegoen, hori dena ondo ikasteko.

Ze eratako kantak dituzu gustuko?

Mugimendua duten kantak nahiago ditut, alaiagoak dira. Jazz meza esate baterako musika tresnen laguntzarekin egin dugu, bateriarekin, etab. Hori ondo egon da.



Amaia Ormazabal, coralista de la escolanía Kanta Kantari

«Hemos aprendido mucho con los directores»

Participó en el Día Coral con el coro que dirige Silvia Hernández. Desde pequeña, estudia piano.

¿Qué tal ha sido la experiencia?

Hemos estado muy a gusto. Los directores han sido muy majos y hemos aprendido mucho con ellos. El fin de semana que estuvimos concentrados, ensayamos durante el día y nos divertimos juntos a la noche; y nos pasamos muchas horas conversando. Han sido muchas horas de ensayo, pero al final todo ha salido bien. Algunas canciones eran complejas y por eso había que dedicarle horas para poder asimilar todo bien.

¿Qué tipo de canciones te gustan más?

Prefiero las que tienen movimiento, son más alegres. Por ejemplo, la misa jazz la hemos cantado con acompañamiento de instrumentos de música, con la batería, etc. Todo eso ha estado bien.



Opera Lisboan

Leioa Kantika Korala haur abesbatzak opera bat estreinatu du orain dela gutxi Lisboan. Vasco Negreiros konpositore portugaldarraren *As Palavras Na Barriga* opera da. Portugalgo hainbat misikarirekin batera kantatu zuten bizkaitarrek apirilean.

Portugalen bizi den Juva Batella idazle brasildarraren *O menino que guardava as palavras na barriga* liburuan oinarrituta dago opera. Días da Música urteroko jaialdian eskaini zuten opera hori Lisboako Belemgo Kultur Zentroan, apirilaren 23an, 24an eta 25ean.

Sei urteko gorako haurrentzat pentsatutako obra da eta Filarmonia das Beiras orkestrak parte hartu zuen emanaldian. Vasco Negreiros berek zuzendu zituen musikari guztiak. Eszenako lanak Luca Aprea italiarrak zuzendu zituen; eszenografiaren arduraduna, berriz, Luis Santos izan zen. Beatriz Bagulho, Rebeca Amorim eta Camila Robert aritu ziren bakarlari gisa.

Munduarekiko harremanaren gozamenari buruzko alegoria bat da *As Palavras Na Barriga*. Izaki magiko bati esker, bi anaiek aberastu egiten dute euren bizimodua: arreba ameslaria jolasa eta poza badirela ohartzen da, eta anaia txiki bihurria, berriz, poesiaz jabetzen da.

Sarrerak agortuta

Salgai jarri ziren egun berean saldu ziren hiru emanaldietarako sarrerak. Horrek agerian

uzten du proiektuak Portugalgo musikaren munduan piztu duen interesa.

Apirilaren 22an kontzertu itxi bat eman zen prentsa eta musika munduko 35 gonbidaturentzat. Kritika guztiak oso onak izan ziren; eszenako muntaiaren zailtasuna, originaltasuna eta abesbatzako kideen ahots kalitatea nabarmendu zituzten.

Leioa Kantika Koralaren arabera, “oso harrigarria izan zen entzuleen erreakzioa, batez ere umeena: arreta handiz entzun zuten 55 minutuko iraupena zuen muntaia; barre egin eta zenbait kasutan parte hartu ere egin zuten”.

Informazio gehiago:

www.leioakantikakorala.com



Ópera en Lisboa

El coro infantil Leioa Kantika Korala ha estrenado recientemente en Lisboa la ópera *As Palavras Na Barriga* del compositor portugués Vasco Negreiros. Los vizcaínos actuaron en abril junto con varios músicos portugueses.

La ópera, que está basada en el libro *O menino que guardava as palavras na barriga* del escritor brasileño residente en Portugal Juva Batella, fue interpretado dentro del festival anual Días da Música en el Centro Cultural de Belém, en Lisboa, los días 23, 24 y 25 de abril.

La obra está pensada para niños a partir de seis años y ha contado con la participación de la Orquesta Filarmonia das Beiras, bajo la dirección musical del propio Vasco Negreiros.

La dirección escénica ha corrido a cargo del italiano Luca Aprea y la escenografía es de Luis Santos. Los papeles solistas han sido interpretados por Beatriz Bagulho, Rebeca Amorim y Camila Robert.

As Palavras Na Barriga es una alegoría del placer del contacto con el mundo. Gracias a la ayuda de un ser mágico, dos hermanos enriquecen sus vidas: la hermana soñadora descubre el juego y la alegría, y el pequeño travieso descubre la poesía.

Entradas agotadas

El mismo día que se pusieron las entradas a la venta se agotaron para las tres funciones, lo que da idea del interés que este proyecto

ha despertado en el mundo musical portugués.

El día 22 de abril se hizo un pase privado para 35 invitados del mundo de la prensa y la música, y todas las críticas han sido enormemente positivas, destacando la complejidad del montaje escénico, su originalidad y la calidad vocal de los componentes del coro.

Según Leioa Kantika Korala, “fue muy sorprendente la reacción del público, especialmente el infantil, que permanecía con gran atención los 55 minutos que duraba el montaje y, reía y participaba en muchas ocasiones”.

Más información en:

www.leioakantikakorala.com

Abesbatzak elkartuta Barakaldon

Bizkaiko abesbatza guztietako 1.600 kantari elkartu ziren ekainaren 6an Bizkaiko Abesbatzen Eguna ospatzeko. Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antolatutako egun hori Barakaldon egin da aurten; herriko Zigor Koralaren 25. urteurrenarekin bat egin du.

Abesbatzen Egunaren helburua abesbatza mugimenduaren indarra bizkaitarrei erakustea da; gizarteko maila desberdinetan abesbatzek eduki beharko luketen garrantziaz ohartarazi nahi da, eta abesbatzak babesteko eta bultzatzeko beharra nabarmendu nahi da.

Federatutako abesbatzak Barakaldon elkartu dira aurten ekainaren 6an. Hainbat erakunde

eta taldek lagundu dute egun horren antolaketan: bertako Udalak, herriko Orfeón Baracaldés abesbatzak eta Barakaldoko Zigor Koralak; aurten 25 urte betetzen ditu azken horrek.

Aurten XVII. Edizioa egin da eta Bizkaiko 67 abesbatzek parte hartu dute: ahots nahasietako 39 abesbatza, ahots lodietako 11 koru, ahots zurietako 11 helduen abesbatza eta 6 haur abesbatza. Lehendabizi kalejira bat egin zen abeslari guztiekin, Barakaldoko Udal Musika Banda eta, erraldoiak eta buruhandiak buru zirela.

Eguerdian izan zen kontzertua. Amaieran, bi kantu eskaini zituzten abesbatza guztiek

batera: Txanton Piperrri operaren *Azken Ereserkia*, eta *Bengolea* Barakaldoko kantu herrikoa; Barakaldoko Udal Musika Bandak lagundu zien bi abestietan eta Belen Loubet euren zuzendariak zuzendu zituen.

Abesbatza musika Bizkaiko zoko guztietara zabaldu nahi da egun horrekin eta musikagile handien obrak ezagutarazi nahi zaizkie entzule guztiak. Horrekin batera, abesbatzetan dagoen giroa plazaratzeko asmoa du egun horrek.

Lehendabiziko aldiz Bilbon egin zenetik, urte hauetan guztietan erakundeen laguntza izan du federazioak: Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bilbao Bizkaia Kutxarena eta egun hori ospatu izan den udalena.



Concentración coral en Barakaldo

Cerca de 1.600 cantantes de todos los coros de Bizkaia se reunieron el 6 de junio para celebrar el Día Coral de Bizkaia. Este día organizado por la Federación de Coros de Bizkaia se celebró este año en Barakaldo, coincidiendo con el 25 aniversario de Zigor Korala de la localidad.

El Día Coral no tiene otra pretensión que

no sea la de demostrar a los vizcaínos la fuerza del movimiento coral; es una llamada a la importancia que el mundo coral debiera tener en los diferentes estamentos sociales y su necesidad de apoyo e impulso.

Este año los coros federados se concentraron el 6 de junio en Barakaldo y contaron con el apoyo del Ayuntamiento, del centenario Orfeón Baracaldés y de Zigor Korala, que este año cumple 25 años.

Este año se ha celebrado la XVII edición y han participado 67 coros de Bizkaia (39 de voces mixtas, 11 de voces graves, 11 de voces blancas adultas y 6 de txikis). Primeramente se realizó una kalejira con todos los coralistas, encabezada por la Banda Municipal de Música de Barakaldo y por gigantes y cabezudos.

Al mediodía se celebró el concierto. Al

final, todos los coros unidos interpretaron conjuntamente dos canciones: el *Himno Final* de la ópera Txanton Piperrri, y la canción popular Barakaldesa, *Bengolea*, ambas acompañadas por la Banda Municipal de Música de Barakaldo y dirigidas por su directora, Belén Loubet.

Con este día se pretende llevar la música coral a todos los rincones de Bizkaia y dar a conocer al gran público las obras de los grandes compositores, así como mostrar el ambiente que reina entre los coros.

Desde la primera vez que se celebró en Bilbao, durante todas las ediciones la federación ha contado con la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia, de la Bilbao Bizkaia Kutxa, así como de los distintos Ayuntamientos donde se ha celebrado.



Kirikiño, mende laurdena kantuan

Abesbatza eta dantza taldea batera sortu ziren Mañarian, nahiz eta gero bakoitzak bere bidea egin duen. Ahots zurien abesbatzak pasa de ekainaren 19an ospatuko zuen urteurrena. Hogeita bost urteotan kantari ibili diren abeslariez inguratuta ospatuko zuten.

Hogeita bost urteko ibilbideari eta urte

horietako errepertorioari errepaso egin zioten kontzertuan. Irailaren 18an bazkari bat egingo dute dantza taldeko kideekin batera. Urte amaieran, kanpoko abesbatzak gonbidatuko dituzte.

Ebaristo Bustintza 'Kirikiño' mañariarraren izena jaso zuen abesbatzak; XIX. mendearen erdialdean sortutako poeta, kazetaria eta

abestien egilea izan zen 'Kirikiño'.

1985ean sortu zen abesbatza, musikaren kultura eta euskal folklorea sustatzeko asmoz. Hastapenean, liturgia kantuak kantatzen zituen abesbatza horrek Andre Maria Jasokundearen parrokiaren. Hasieratik Andra Mari guraso elkartearen laguntza izan du. Gaur egun, noizean behin liturgian laguntzen du parrokiaren.

1990ean Bizkaiko Abesbatzen Federazioan sartu zen. 1996 eta 2000. urteen artean 'Pueri Cantores' elkartearen kide izan zen; elkarte horren bitartez kontzertuak eskaini zituzten Salzburgen, Vienan eta Lyonen. 1993az geroztik Bizkaiko Abesbatzen Astearen parte hartzen dute.

2007an lehen saria lortu zuen Miranda Ebroko Habaneren II. Lehiaketa Nazionalean. 2008an, 'Diego de Amezua' III. Organo jaialdirako gonbidatu zuten; Ainhoa Barredo organo-joleak lagunduta kantatu zuten.

Gaur egun, 17 ahots zurik osatzen dute abesbatza. Euskal Herriko kantu herrikoiak dira nagusi euren errepertorioan, polifonia eta musikagile garaikideen obrak alde batera utzi gabe. Sorreratik Itxaso Arrizabalagak zuzentzen du korua.



Kirikiño, cuarto de siglo cantando

El coro y el grupo de danzas de Mañaria fueron creados al mismo tiempo, aunque posteriormente han realizado el camino de forma independiente. La coral de voces blancas celebró el aniversario el pasado día 19 de junio acompañados por ex coralistas de distintos momentos de su andadura.

En el concierto de junio hicieron un repaso a los 25 años de su historia y también al repertorio de todos estos años. El 18 de septiembre realizarán una comida junto con los componentes del grupo de danzas. Al final del año, invitarán a agrupaciones corales de fuera.

Debe el nombre a Ebaristo Bustintza 'Kirikiño', poeta, periodista y compositor de canciones de Mañaria nacido a mediados del siglo XIX.

La coral se fundó en el año 1985 con la idea de fomentar la cultura musical y el folklore vasco. Sus comienzos están ligados a los cantos litúrgicos de la parroquia N^a Señora de la Asunción, contando desde un principio con el apoyo de la asociación de padres Andra Mari. Hoy en día, acompaña en la liturgia en ocasiones puntuales.

El año 1990 entra a formar parte de la Federación de Coros de Bizkaia. Entre 1996 y el 2000 formaron parte de la asociación 'Pueri Cantores' con la que

ofrecieron conciertos en Salzburgo, Viena y Lyon. Desde 1993 participan en la Semana Coral Vizcaína.

En 2007 obtuvo el primer premio en el II Certamen Nacional de Habaneras de Miranda de Ebro. En 2008, fue invitado al III festival de órgano 'Diego de Amezua'; cantaron acompañados de la organista Ainhoa Barredo.

El coro cuenta en la actualidad con 17 voces blancas y su repertorio está compuesto por obras populares del País Vasco, sin dejar de lado la polifonía y obras de compositores contemporáneos. Desde su fundación dirige la coral Itxaso Arrizabalaga.



Altzaga Gijonen

Erandioko Altzaga ahots zurien abesbatzak emakumeen abesbatzen topaketa batean parte hartu zuen martxoan Gijonen. Bertako Rosario Acuña abesbatzak antolatu zuen topaketa. Jende lepo beteta egon zen aretoa eta hainbat minutuz entzuleek txalo zaparrada handiak eskaini zizkieten bizkaitarrei.

Martxoaren 13an izan zen emanaldia Jovellanos kultur zentroan eta meritu handiko lana egitea lortu zuen abesbatzak; jasotako esku-zartak horren seinale. Hurrengo egunean, Covadongako Ama Birjinaren Kobazulo Santuan kantatu zuen abesbatzak; abade nagusiak gidatutako mezan abestu zuten.

Hiru disko kalean

Erandioko Altzaga abesbatza 1997an sortu zen, herriko Emakume Elkartearen barruan. 33 emakumek osatzen dute eta sorreratik Gerardo Franco Aranagak zuzentzen du.

Parisko UNESCOren egoitzan parte hartu du, besteak beste. Hiru disko konpaktu argitaratu ditu eta era guztietako kantuak jasotzen dituzte: obra erlijiosoak, gospel eta habanera doinuak, obra sinfoniko-koralak, eguberri-kantak eta musikagile askok egindako kantu herrikoiak. Horrez gain, Errukitasunaren Ama Kongregazioko ereserki guztiak ere jasotzen dituzte disko horietan; ordenaren ehungarren urteurrena zela-eta estatuan egin ziren ospakizunetarako grabatu zituzten.

La coral de voces blancas Altzaga de Erandio participó en marzo en el encuentro de coros de mujeres organizado por la coral Rosario Acuña de Gijón. La sala abarrotada de público, ovacionó durante varios minutos a las vizcaínas.

La actuación fue el día 13 de marzo, en el centro cultural Jovellanos y consiguió realizar una actuación de verdadero mérito, a juzgar por los aplausos recibidos. Al día siguiente, la coral actuó en la Santa Cueva de la Virgen de Covadonga, cantando una misa presidida por el abad principal.

Tres discos editados

El coro Altzaga abesbatza de Erandio se creó en el año 1997, en el seno de la Asociación de Mujeres de Erandio. Está compuesto por 33 mujeres y dirigido desde su creación por Gerardo Franco Aranaga.

Ha actuado en la sede de la UNESCO en París, entre otros. Tiene editados tres discos compactos con obras religiosas, gospel, habaneras, sinfónico-corales, villancicos y música popular de muy variados autores, así como todos los himnos de la Congregación de la Compasión, grabados con motivo del centenario de la orden en el estado.

Lagun Zaharrak Oloten


Santurtziko Lagun Zaharrak Abots Zuriak abesbatzak Kataluniara bidaiatu egin zuen eta bertan kontzertu bat eskaini zuen Gironako Olot herrian. 20 kantuz osatutako emanaldia izan zen: euskal folklorea, abesti herrikoiak, polifonia eta kantu gregorianoa. Fructus Temporis bertako ahots zurien abesbatzak harrera ona egin zion koru bizkaitarrei. Pasa den urrian katalanek Santurtzin urtero egiten den Nazioarteko Abesbatzen Topaketan parte hartu zuten.

Koru bizkaitar hau 1997an sortu zen. 16 emakumek osatzen dute eta Roberto Perdiguero Moralesek zuzentzen du.

Lagun Zaharrak en Olot

En el puente de San José, el coro de voces blancas Lagun Zaharrak Abots Zuriak de Santurtzi viajó hasta Cataluña, para ofrecer un concierto en Olot (Girona). Realizaron una actuación de 20 obras, que incluía folklore vasco, canción popular, polifonía y canto gregoriano. El coro vizcaíno tuvo una gran acogida por parte del coro anfitrión, el Fructus Temporis de voces blancas. El pasado octubre las catalanas participaron en los Encuentros Internacionales de Coros que se realiza anualmente en Santurtzi.

Esta coral vizcaína se creó en 1997. Está compuesta por 16 mujeres y dirigida por Roberto Perdiguero Morales.



Antxieta Txiki eta Vocalia Parisen

Bi euskal abesbatzak Parisen izan dira orain gutxi, baina bakoitza bere aldetik. Azpeitiko gazteenek euren 25. urteurrena ospatzeko aukeratu zuten Frantziako hiriburua. Basilioaren emakumeek, berriz, *Laudes Mariae* euren azken diskoa aurkezteko aprobetxatu zuten bidaia.

Antxieta Txiki UNESCOn

Azpeitiko Juan de Antxieta musika eskolako

neska-mutilek Parisera bidaiatu zuten urtarrilaren 14tik 17ra bitartean, Abesbatzen XVI. Nazioarteko Lehiaketan parte hartzeko. UNESCO aretoan kantatu zuten, eta horrez gain, emanaldia eskaini zuten Villepente izeneko herrian; Italiako gazte koru batek ere parte hartu zuen kontzertu horretan.

Paris eta Eurodisney ikusteko aprobetxatu zuten bidaia. Abesbatzaren arabera, “esperientzia hunkigarria izan da eta taldea asko motibatu du”.

Abesbatza azpeitiarra 10 eta 13 urte bitarteko 41 ikaslek osatzen dute eta Gloria Larramendik zuzentzen du.

Vocalia Les Musicales de Montreuil zikloan

Basilio Astulezek zuzendutako emakumezkoen Vocalia Taldeak *Laudes Mariae* lan berria aurkeztu zuen Parisen. Kontzertu bat eskaini zuen Les Musicales de Montreuil 2010 izeneko ziklo frantsesean martxoaren 14an; Montreuilko Saint Pierre-Saint Paul elizan izan zen emanaldia.

Andre Mariari buruzko obrak jasotzen dira *Laudes Mariae* lanean, garai eta estilo desberdinetakoak. P. Casals, P. Kostianen edo D. Andreo konpositoreen musika jasotzen du, besteak beste. Proiektu horretarako espresuki idatzitako obrak abestu zituzten kontzertu horretan; Maider Bilbao piano-jotzailearen, eta Zuriñe Alvarez eta Jaurne Gaminde bakarlarrien laguntza izan zuten.

Italiako Fanoko Abesbatzen Nazioarteko Jaialdira gonbidatu dute Vocalia eta bertan parte hartuko du datorren irailean.

El coro azpeitiarra está formada por 41 alumnos, de entre 10 y 13 años, y lo dirige Gloria Larramendi.

Vocalia en Les Musicales de Montreuil

El coro femenino Vocalia Taldea dirigido por Basilio Astúlez presentó en París su nuevo programa *Laudes Mariae*. El 14 de marzo ofreció un concierto dentro del ciclo francés Les Musicales de Montreuil 2010, en la iglesia de Saint Pierre-Saint Paul de Montreuil.

Laudes Mariae está compuesto por obras marianas de diferentes épocas y estilos que incluye música de P. Casals, P. Kostianen o D. Andreo, entre otros. El concierto, que incluyó además algunas obras escritas expresamente para este proyecto, contó con la colaboración de la pianista Maider Bilbao y, con Zuriñe Álvarez y Jaurne Gaminde como solistas.

Vocalia acudirá en el mes de septiembre como invitada al Festival Internacional Coral de Fano, en Italia.

Ezoziko Ama Munichen

Soraluzeko ahots nahasietako abesbatzak Municheko V. Cantate Bavaria jaialdian parte hartu zuen martxoan. Hainbat herrialdeetatik etorritako abesbatzek parte hartu zuten Music Contact International erakundeak antolatutako topaketa horretan.

Soraluzekoak lehen ere egonak ziren era horretako jaialdietan. 2004an, Abesbatzen X. Topaketan parte hartu zuten Parisen. Orduan ere erakunde horrek antolatu zuen jaialdia. Esperientzia ona izan zen, eta beraz, beste bidaia bat egitea erabaki zuten, baina beste herrialde bat aukeratu zuten. Oraingoan Alemanian izan dira, martxoaren 18tik 21era bitartean, Municheko jaialdian parte hartzeko.

Lehenengo egunean adiskidetasun kontzertua eskaini zuten Stiftung Bayerische Landeschule kontzertu aretoan; honako beste abesbatza hauek ere parte hartu zuten: Alemaniako ADAC Chor eta

Kantorei Rahden & Kammerchor Belle Canto abesbatzak, eta Italiako Coro Le Castellane. Eslavaren *Panis Angelicus*, Erb konpositorearen *Shenandoah* eta Luis Aranbururen *Gaur Akelarre Gorbeian* abestiak kantatu zituzten kontzertu horretan, besteak beste. Kantorei abesbatza alemanak ahozabalik utzi zituen euskaldunak euskaraz kantatu zutenean; Javi Bustoren *Lafa - Lafa* abestu zuten.

Bigarren egunean, St. Michaelskirche

elizan (San Migelen eliza) eman zuten kontzertua. Topaketa horretan hamar abesbatzek parte hartu zuten. Javi Bustoren *A tu lado* eta *Ametsetan* abestu zituzten gipuzkoarrek.

Euskal abesbatzak Munich ezagutzeko aprobetxatu du bidaia. Abesbatzako kideen arabera, “esperientzia oso polita eta gomendatzeko modukoa izan da. Oso interesgarria da guregandik oso hurbil ez dauden koruek nola funtzionatzen duten ikustea eta guztiak guztiengandik ikastea. Harremanak egiteko ere balio du”.

Informazio gehiago:

www.musiccontact.net



Antxieta Txiki y Vocalia en París

Los dos coros vascos han cantado en París recientemente, pero cada uno por su lado. Los más jóvenes de Azpeitia eligieron la capital francesa para celebrar su 25 aniversario. En cambio, las mujeres de Basilio aprovecharon el viaje para presentar

su nuevo programa *Laudes Mariae*.

Antxieta Txiki en la UNESCO

Los chicos y chicas de la escuela de música Juan de Antxieta de Azpeitia viajaron a París del 14 al 17 de enero, para participar en el XVI. Certamen Internacional de Coros. Cantaron en la sala UNESCO, pero también ofrecieron un concierto en una localidad llamada Villepente, en el que también participó una coral italiana de jóvenes.

Aprovecharon el viaje para visitar París y Eurodisney. El coro cree que “la experiencia ha sido emotiva y ha motivado mucho al grupo”.

Ezoziko Ama en Munich

La coral de voces mixtas de Soraluze participó en marzo en el festival V. Cantate Bavaria celebrado en Munich. En este encuentro organizado por el organismo Music Contact International tomaron parte coros provenientes de diferentes países.

Los de Soraluze ya tenían experiencia en este tipo de festivales, ya que en el año 2004 tomaron parte en el X Encuentro de Coros celebrado en París y organizado por el mismo organismo. La experiencia fue muy positiva, por lo que decidieron realizar otro viaje, pero cambiando el destino. Esta vez se trasladaron a Alemania, para participar en este festival de



Munich celebrado entre el 18 y 21 de marzo.

El primer día ofrecieron un concierto de amistad en la sala de conciertos Stiftung Bayerische Landeschule, junto a los siguientes coros: ADAC Chor de Alemania, Kantorei Rahden & Kammerchor Belle Canto de Alemania y Coro Le Castellane de Italia. En ese concierto interpretaron entre otras, *Panis Angelicus* de Eslava, *Shenandoah* de Erb y *Gaur Akelarre Gorbeian* de Luis Aranburu. El coro alemán Kantorei sorprendió a los vascos con la interpretación de *Lafa - Lafa* de Javi Busto, en euskara.

El segundo día, el concierto se celebró en

St. Michaelskirche (Iglesia de San Miguel). Ahí actuaron los diez coros participantes en ese encuentro. Los guipuzcoanos interpretaron *A tu lado* y *Ametsetan*, ambas de Javi Busto.

El coro vasco ha aprovechado el viaje para conocer Munich. Según sus integrantes, “la experiencia ha sido muy bonita y recomendable para todos. Es muy interesante ver cómo funcionan otros coros no tan cercanos y aprender todos de todos. También sirve para entablar relaciones”.

Más información en:

www.musiccontact.net



Gipuzkoako abeslari txikienek asteburu bat elkarrekin pasatzeko eta errepertorio bat prestatzeko aukera izan zuten pasa den apirilaren 17an eta 18an. Hondarribian elkartu ziren zortzi haur abesbatza Haur Koruen IV. Topaketan, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta.

Gipuzkoan federatuta dauden haur abesbatza guztiei zuzendutako tailerra izan zen. 7 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoak izan ziren tailer horren protagonistak eta

topaketaren helburua koro musika lantzea izan zen. Zortzi abesbatzek elkartuta koro-errepertorio erakargarria eta dibertigarria egin zuten.

Honako haur abesbatza hauek parte hartu zuten: Oñatiko Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxoak, Donostiako Txepetxa, Zegamako Orkatx Txiki, Arrasateko Goikobalu Txiki, Tolosako Hodei Truk, Bergarako Orfeoi Txiki eta Ordiziako Oroith Txiki abesbatza.

Parte-hartzaile guztiak adinaren arabera

bi taldetan banatu zituzten eta topaketa horretara gonbidatutako bi zuzendarirekin lan egin zuten: Isabel Mantecon pasaiatarrarekin eta Rakel Murgiondo abeslariarekin lan egin zuen Murgiondok; 11 eta 14 urtekoekin, berriz, Manteconek. Horiakin batera gorputz adierazpena landu zuten Nagore Orbeltzurekin.

Estilo eta hizkuntza askotako abestiak ikasi zituzten, tartean euskal konpositoreenak: Eva Ugalde, Josep Vila, David Azurza, The

Beatles...

Bereziki adin horietarako prestatutako gorputz-lana egin zuten: posturak berbideratu (erlaxazioa, gorputzaren kontzientzia, gorputzaren zentroekin lan egin) eta dramatizazioa (desinhibitzea, espresibitate-gaitasuna garatzea). Orbeltzu aktorea, dantzaria eta tai-chi irakaslea da eta lan asko egin du gazteekin.

Topaketan landutako kantuekin kontzertu ireki bat eskaini zuten Hondarribiko Portuko elizan.



Ahotsak elkartuta

Voces unidas

Los coralistas más pequeños de Gipuzkoa tuvieron la ocasión de pasar un fin de semana juntos el 17 y 18 de abril, con el objetivo de preparar conjuntamente un repertorio. Ocho coros infantiles se reunieron en Hondarribia en el IV Taller de coros infantiles, organizado por la Federación de Coros de Gipuzkoa.

Se trata de un taller dirigido a todos los coros infantiles federados en Gipuzkoa. Los protagonistas fueron los chicos y las chicas de

entre 7 y 14 años y el objetivo del taller fue trabajar la música coral. Las ocho corales conjuntamente prepararon un repertorio coral atractivo y divertido.

Participaron en el taller Oñatiko Ganbara Txiki y Ganbara Txikitxoak, Txepetxa de Donostia, Orkatx Txiki de Zegama, Goikobalu Txiki de Arrasate, Hodei Truk de Tolosa, Orfeoi Txiki de Bergara y Oroith Txiki de Ordizia.

Todos los participantes se distribuyeron en dos grupos según edades y pudieron trabajar

con los dos directores invitados del taller: Isabel Mantecon de Pasaia y Rakel Murgiondo de Arrasate. Murgiondo trabajó con los de entre 6 y 10 años, mientras que Mantecon estuvo con los de 11-14 años. Junto con las dos directoras, realizaron la expresión corporal con Nagore Orbeltzu.

Prepararon un programa compuesto por obras de estilos diferentes, interpretadas también en varios idiomas, algunas de ellas de compositores vascos: Eva Ugalde, Josep Vila, David Azurza, The Beatles...

Realizaron un trabajo corporal pensado especialmente para esas edades: reconducción postural (relajación, conciencia corporal, trabajo con los centros corporales) y dramatización (desinhibición, desarrollo de la capacidad expresiva). Orbeltzu es actriz, bailarina y profesora de tai-chi, con gran experiencia en el trabajo con los más jóvenes.

Con las obras trabajadas en el taller, se ofreció un concierto abierto en la iglesia del puerto de Hondarribia.

Rakel Murgiondo, tailerreko zuzendari gonbidatua

«Arreta, gogoia eta ilusioa jarri dute haurrek»

Arrasateko Goikobalu abesbatzaren zuzendaria da. Lehenengo aldiz parte hartu du ikastaro batean irakasle gisa. 6 eta 10 urteko haur kantariekin aritu da.

Nola joan da haur koruen tailerra? Zer nolako esperientzia izan da?

Orokorrean esperientzia oso ona izan da denontzat. Gogorra izan da, gela batean entsaiatzen ordu asko sartu baitituzte, baina ondo pasa dute eta ahaleginak merezi izan duela uste dut. Hasierako unean beldur apur bat baneukan, ez bainekien nola hartuko ninduten haurrek, baina berehala bat egin zuten eta, egia esan, oso talde jatorria izan dut. Harritzekoa da zer nolako arreta, gogoia eta ilusioa jarri duten kantu guztietan.

Bi eguneko tailerra izan da. Egun gutxi dira. Zer egin daiteke bi egunetan?

Bai, egun gutxi dira. Haurtzat lan egiteko beste modu bat ezagutzeko balio izan du. Zuzendari gehienok antzera lan egiten dugu,

baina bakoitzak gure izateko era daukagu eta hori zuzentzerakoan nabari da: keinuak, kantuen ezaugarriak transmititzeko moduak, musika bizitzeko era... Talde bakoitzak sei bat abesti landu zituen hizkuntza ezberdinetan: euskaraz, gaztelaniaz, katalanez, japonieraz, ingelesez, hebreeraz... Gehienak buruz ikasi zituzten, batzuk koreografia eta guzti. Txalotzekoa benetan haurrek egindako ahalegina!

Zer landu duzue batez ere ume horiekin?

Oinarrian abestiak landu ditugu. Hala ere, ahots teknika, arnasketa, bokalizazioa, espresioa, hitzen esanahia... ere landu ditugu.

Ze bitarteko erabili daitezke arretari eusteko eta umeak gustura edukitzeko?

Taldearen eta adinaren arabera bitarteko ezberdinak erabiliko dira, baina hurbiltasuna eta gozotasuna ezinbestekotzat jotzen ditut. Zuzendariak eta taldekideek haur bakoitza den modukoa onartzea, bere izaera eta gaitasunak errespetatzea, gustura sentitzea eta ahal den maila goreneraino

bere garapena sustatzea dira helburu nagusiak.



Rakel Murgiondo, directora invitada del taller

«Los niños han puesto atención, ganas e ilusión»

Dirige el coro Goikobalu de Arrasate. Es la primera vez que participa en un curso en calidad de profesora. Ha trabajado con coralistas de entre 6 y 10 años.

¿Cómo ha ido el taller de coros infantiles? ¿Qué tal ha sido la experiencia?

En general ha sido una experiencia muy buena para todos. Ha sido intenso, ya que han estado muchas horas ensayando en el aula, pero creo que el esfuerzo ha merecido la pena. Al principio tenía un poco de miedo, porque no sabía cómo me acogerían los niños, pero conectaron enseguida y, sinceramente, me ha tocado un grupo muy agradable. Es increíble la atención, las ganas y la ilusión que han puesto en todas las canciones.

El taller ha durado dos días. Son pocas jornadas. ¿Qué se puede trabajar en tan solo dos días?

Sí, son pocos días. Ha servido para que los niños tuvieran un referente diferente en cuanto

a la manera de trabajar.

La mayoría de directores trabajamos de una forma parecida, pero cada uno tiene su forma de ser y eso se nota a la hora de dirigir: los gestos, la manera de transmitir la característica de cada canción, la forma de vivir la música... Cada grupo trabajó seis obras en diferentes idiomas: en euskara, castellano, catalán, japonés, inglés, hebreo... La mayoría de las melodías se las aprendieron de memoria, algunas de ellas con coreografía y todo. ¡Es elogiabile el trabajo que han realizado los niños!

¿Qué han trabajado en especial con esos niños?

Básicamente hemos trabajado canciones. Sin embargo, también hemos realizado técnica vocal, respiración, vocalizaciones, expresión, significado de las letras, etc.

¿Qué recursos se pueden utilizar para mantener la atención de los niños y tenerlos contentos?

Según el grupo y la edad de los coralistas, se utilizarán diferentes recursos, pero la afinidad y la dulzura son imprescindibles. El director y el resto de coralistas deben de aceptar a cada niño como es, respetar su forma de ser y capacidades; hay que conseguir que se sienta a gusto y promover su evolución hasta el máximo.



Ganbara Txiki Torrevejejan nagusi

Lehiaketa batean parte hartzen zuen lehen aldia izan da Oñatiko Ganbara Txiki Abesbatzarentzat eta lehen saria besapean dutela itzuli dira txantxikuak Torrevejejatik. Alacanteko kostaldeko hiri horretako XVI. Gazte Habanera Lehiaketan parte hartu zuen apirilaren 23an eta 24an. Taldearen orekak, afinazioak, musikalitateak eta eszenaratzek txunditu egin du epaimahaia.

Torrevejako bertako Armando Bernabeu kompositorearen *Testigo de Amor* obra kantatu behar izan zuten talde guztiek derrigorrez. Oñatiarrek euskal kompositoreen lana ere

eraman zuten, David Azurzaren *Habaneras de Carnaval* eta Josu Elberdinen *Angelus*, besteak beste. Hiru pieza horietaz gain, iazko lehiaketan derrigorrezko obra izan zen *Habanera Salada* pieza ere abestu zuten.

Bigarren saria Kubako Habanako Cantoria Solfa abesbatzarentzat izan zen. Hirugarren saria, berriz, Badajozeko Villanueva de la Serena herriko Arte Vocal Juvenilentzat.

Lehiaketa batean parte hartu duen lehen aldia izan da Ganbara Txiki Abesbatzarentzat eta esperientzia aberasgarria izan da. Epaimahaia taldearen oreka, afinazioa, musikalitatea eta eszenaratzea nabarmendu zituen.

Torrevejakoaz gain, maiatzaren 22an

Zumarragako Antigua Abesbatzak Lehiaketan parte hartu zuen.

80 hurrez osatutako musikala Ganbara Txikitxoak abesbatzak eta Bergarako Orfeo Txikik musikal bat eskaini zuten aurtengo udaberrian Oñatin eta Bergaran. 80 haur baino gehiago elkartu ziren. Film eta marrazki bizi-dunetako soinu bandak kantatu zituzten, irudiak proiektatzen zituzten bitartean. Horrez gain, Josu Elberdinen *Ipuin musikagilea* musikala eskaini zuten, antzerkia, magia eta zirkua uztartzen dituen.

Informazio gehiago:

www.ganbara.org

www.habaneras.org



Ganbara Txiki vencedor en Torrevejeja

Era la primera vez que el coro Ganbara Txiki de Oñati participaba en un certamen y los txantxikus han vuelto de Torrevejeja con un premio bajo el brazo. Los días 23 y 24 de abril, participaron en el XVI. Certamen Juvenil de Habaneras de la ciudad costera alicantina. El equilibrio del grupo, la afinación, la musicalidad y su puesta en escena han seducido al jurado.

Todos los grupos tuvieron que interpretar como obra obligada *Testigo de Amor* del

compositor local Armando Bernabeu. Los de Oñati llevaron también música de compositores vascos, como por ejemplo, *Habaneras de Carnaval* de David Azurza y *Angelus* de Josu Elberdín. Además de esas tres piezas, interpretaron la obra obligada del año pasado: *Habanera Salada*.

El segundo premio fue otorgado a la agrupación coral Cantoría Solfa de La Habana (Cuba). El tercer premio se llevó el coro juvenil Arte Vocal de Villanueva de la Serena de Badajoz.

Era la primera vez que el coro Ganbara

Txiki de Oñati participaba en un certamen y la experiencia ha sido enriquecedora. El jurado destacó el equilibrio del grupo, la afinación, la musicalidad y su puesta en escena.

Aparte de Torrevejeja, el 22 de mayo participó en el certamen Antigua Abesbatzak Lehiaketa de Zumárraga.

Musical cantado por 80 niños

La coral Ganbara Txikitxoak y Orfeo Txiki de Bergara ofrecieron un musical esta primavera en Oñati y en Bergara, en el que se reunieron más de 80 niños. Interpretaron bandas sonoras de películas y de dibujos animados, mientras iban proyectando imágenes. Además, ofrecieron *Ipuin musikagilea* de Josu Elberdín, un musical que une teatro, magia y circo.

Más información:

www.ganbara.org

www.habaneras.org

Kataluniarrak irabazle Antiguán

Bartzelonako Vivaldi haur abesbatzak irabazi zuen XII Antigua Abesbatzak Lehiaketa. Urtero bezala Zumarragako ermita ederrean egin zen. Irudi berriarekin azaldu da aurten lehiaketa: Antigua Txiki izena hartu du, bakarrik haur abesbatzek parte hartu ahal izan baitute.

Maiatzaren 22an lehen saria -lehiaketako bakarra- lortu zuen Vivaldi abesbatzak, eta horren ondorioz, 2011ko Abesbatzen Sari Nagusian parte hartuko du Antigua Abesbatzak Lehiaketaren ordezkari gisa.

Josu Elberdinen obra ondoen kantatu zutenen saria ere irabazi zuten kataluniarrek. Elberdinen obrak derrigorrez kantatu behar izan zituzten. Musikagile pasaiatarren lana zabaltzen lagundu nahi izan du

antolakuntzak.

Vivaldi abesbatza 10 eta 16 urte arteko 25 kidez osatuta dago eta Oscar Boadak zuzentzen du. Bartzelonako Eixampleko eskola pribatu kontzertatu bateko koroa da, Institució Pedagògica Sant Isidor ikastetxeoa hain zuten.

Epaimahaian honako hauek egon ziren: Isabel Mantecon, Carlos Etxeberria, Aitor Sáez de Cortazar, Philippe Mendes eta Juncal Guerrero. Guztiek nabarmendu dute abesbatza irabazlearen maila handia eta aukeratutako obren zailtasuna.



Los catalanes triunfan en Antigua

El coro infantil Vivaldi de Barcelona ganó la XII Antigua Abesbatzak Lehiaketa, que se celebra todos los años en la hermosa ermita de Zumárraga. Con una imagen renovada, este año el certamen se ha denominado Antigua Txiki, debido a que sólo se citó a coros infantiles.

El 22 de mayo el coro Vivaldi se hizo con el primer y único premio del certamen, que le permitirá representar a Antigua Abesbatzak Lehiaketa en el Gran Premio de Canto Coral 2011.

Los catalanes también recibieron la distinción a la mejor interpretación de una obra de Josu Elberdín, compositor obligado

del Certamen. La organización ha querido ayudar a difundir la obra del joven compositor pasaiatarra.

El coro Vivaldi está formado por 25 integrantes de entre 10 y 16 años, dirigido por Óscar Boada, y pertenece a la escuela privada concertada de Eixample de Barcelona, al Institució Pedagògica Sant Isidor.

El jurado estuvo compuesto por Isabel Mantecon, Carlos Etxeberria, Aitor Sáez de Cortazar, Philippe Mendes y Juncal Guerrero. Todos han destacado el buen nivel del coro ganador y un programa musicalmente muy exigente.

Además del coro Vivaldi, participaron

Vivaldi abesbatzaz gainera, beste hiru koruk parte hartu zuten: Madrilgo Asociación Coral Infantil Vallehermosok, Oñatiko Ganbara Txikik eta Asturiasko Sama de Langreo herriko Nalongo kontserbatorioko ahots zurien abesbatzak.

Lehiaketa baino ordu batzuk lehenago, bi tailer egin ziren goizean: Gorputz adierazpenari buruzkoa bata eta haur abesbatzarako konposizioari buruzkoa bestea. Susa Herrera eta Josu Elberdín izan ziren ikastaroko irakasleak. Gainera, mugimenduan eta inprobisazioan oinarritutako emanaldi berritzaile eta esperimentalak egin zuten Susa Herrerak agertokian bertan.

Datorren urtean ahots zuriei zuzenduko zaie Antiguako lehiaketa.

otros tres coros: Asociación Coral Infantil Vallehermoso de Madrid, Ganbara Txiki de Oñati y Coro de voces blancas del Conservatorio del Nalón de Sama de Langreo (Asturias).

Unas horas antes del certamen, a la mañana se celebraron dos talleres sobre Expresión corporal y Composición para coros infantiles, que Susa Herrera y Josu Elberdín impartieron, respectivamente. Además, Susa Herrera realizó una actuación novedosa y experimental en el escenario basado en el movimiento y la improvisación.

El próximo año Antigua versará sobre coros de voces iguales.

Batzar Nagusia Iparralden

Iparraldeko Abesbatzen Federazioak batzar nagusi arrunta eta ez ohiko batzarra egin zituen pasa den otsailaren 10ean. Federatuta dauden ia abesbatza gehienek parte hartu zuten.

Ez ohiko batzar nagusian estatutuaren VI. Artikulua aldatu zen: hemendik aurrera Administrazio Kontseilu bat izango du Federazioak; hautatutako sei kidek osatuko dute gutxienez Kontseilu hori. Federatuta ez dauden abesbatzetako kideek norbanako gisa federatzeko aukera izango dute, baina Batzordea osatzen dutenen %20ko portzentajea baino gehiago ez dira izango.

Batzar Nagusi arruntean hainbat gai aztergai izan zituzten: Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearekiko harremanak sustatzea; 2009an Uztaritzen egindako

abesbatzetako zuzendarien bilera; Federazioak abian jarri duen web gunea.

Konpositore, solfeo irakasle eta ahots teknikako irakasleen fitxategi bat prestatzen ari da Federazioa.

Bernadette Jouglex Kanboko Arraga abesbatzaren presidenteak utzi egin du Administrazio Kontseilua, osasun arazoak direla-eta. Bere ordez Damien Soraing sartu da, Donapaleuko Elhea abesbatzaren zuzendaria. Federazioak biziki eskertu nahi du Jouglexek eginiko lan bikaina eta Iparraldeko Federazioari emandako bultzada.

2010eko jarduerak

Pantxoia Daguerre Federazioko presidentek 2010erako aurreikusitako jardueren berri eman zuen.

-Maiatzaren 29an Euskal Herria Cantat egin zen iparralden, Hazpainen. Hiru abesbatzek kantatu zuten Philippe Mendesen zuzendaritzapean: Uztaritzeko Lapurtarrak abesbatzak eta, Irungo Larreaundi abesbatzak eta Bilboko Ingeniariaren Koroak.

-Irailean abesbatzen zuzendaritza ikastaroak hasiko dira. Baionako Kontserbatorioan emango dira ikastaroak Laetitia Casabiancaren gidaritzapean.

-Azaroaren 14an Iparraldea Kantuz izeneko abeslarien topaketa egingo da.

-Abesbatzekin harremanetan jarri ondoren, ahots teknika, solfeo eta zuzendaritza ikastaroen beharra ikusi da.

-Horrez gainera, haur edo gazte abesbatzak sortu eta bultzatu nahi dira.

Informazio gehiago:

www.chorales-pays-basque.com

Assemblée Generale en Iparralde

Le 10 février dernier, ont eu lieu les assemblées générales ordinaire et extraordinaire de la Fédération des Chœurs d'Iparralde auxquelles ont participé un grand nombre des chorales fédérées.

L'assemblée générale extraordinaire a entériné la modification de l'article VI des statuts : la Fédération est constituée d'un Conseil d'Administration d'au moins six membres élus par l'assemblée générale, laquelle peut co-opter également tout individu adhérent ou non qui en fait la demande à raison de 20% maximum du nombre des administrateurs.

Au cours de l'assemblée générale ordinaire, plusieurs points ont été abordés : la réactivation des liens avec la Fédération des Chœurs d'Euskal Herria ; la réunion des chefs de chœur en septembre 2009 à Ustaritz ; la création du site web.

La Fédération est en cours d'élaboration d'un fichier de compositeurs, professeurs de solfège et professeurs de technique vocale.

La présidente du chœur Arraga de Cambo, Bernadette Jouglex, quitte le conseil d'administration, pour raisons de santé et est remplacée par Damien Soraing, chef de chœur de la chorale Elhea de Saint Palais.

La Fédération remercie chaleureusement Bernadette pour son élan et le travail accompli dans la relance des activités de l'association.

Perspectives 2010

Le Président de la Fédération, Pantxoia Daguerre, a présenté les activités prévues pour 2010.

- Le 29 mai, Euskal Herria Cantat. Cette manifestation a eu lieu (en Iparralde), à

Hasparren où se sont produits à tour de rôle, puis ensemble, dirigés par Philippe Mendes, 3 chœurs : Lapurtarrak d'Ustaritz, Larreaundi de Irun, le Coro de Ingenieros de Bilbao.

- En septembre, reprise des cours de formation de direction de chœur, au Conservatoire Régional de Bayonne, animés par Laetitia Casabianca.

- le 14 novembre, Iparraldea Kantuz, rencontre inter-choristes.

- Au décours d'une enquête auprès des chorales, il en est ressorti le besoin de formation au niveau des chefs de chœur et en technique vocale et solfège chanteur pour les choristes.

- Encourager toute initiative dans la création de chorales d'enfants ou de jeunes chanteurs.

Pour plus d'informations:

www.chorales-pays-basque.com

Ejea, 40 urteetako zirrara

Ejea de los Caballerosko Abesbatza Lehiaketak 40 urte bete ditu aurten, eta aurreko urteetan bezala, energiaz eta abesbatza musika onez beterik ospatu du urteurrena. Aurten ez da euskal ordezkariarik izan. Ciudad Realeko Oretania eta Valentziako Santísima Trinidad abesbatzek irabazi dituzte Lehiaketako sari garrantzitsuenak.

40. lehiaketa honetan sartutako berrikuntza guztiek emaitza oso onak eman dituzte: aurten udal kiroldetxean egin da lehiaketa eta gazte abesbatzen atal bat sortu da. 3.000 pertsona baino gehiagok musika koralarekin gozatu

ahal izan zuten apirilaren 9tik 11ra bitartean.

XL. Abesbatza Lehiaketako lehen sari garrantzitsuenak Ciudad Realgo eta Valentziako abesbatzek lortu zituzten: Oretania abesbatzak helduen mailan eta Santísima Trinidad koroak gazteen mailan. Bi sari horietarako laguntza eman dute Ejea de los Caballerosko Udalak eta Zaragozako Diputazio Probintzialak. Horrez gainera, Valentziakoek entzuleen saria eskuratu zuten.

Arrakasten iturburua euskal abesbatzentzat

Euskal abesbatza ugarik behin baino

gehiagotan liluratu dituzte Ejeako epaimahaia eta bertako entzuleak. Askotan irabazi dute lehen saria euskaldunek. Tolosako Hodeiertz abesbatzak Ejean irabazi zuen hain zuzen ere bere lehen saria. "Zuzendari, lehiakide, epaimahaikide eta antolatzaile gisa bizi izan dut Ejeako lehiaketa", dio Enrique Azurza Hodeiertzeko zuzendari eta Ejeako Abesbatza Lehiaketako zuzendari artistikoak. "Eta egoera horietan guztietan antolatzaileen gauzak egiteko modu onarekin eta adeitasunarekin gozatu egin dut; gustura jaso dut, baita ere, entzuleen, eta oro har ejeatar guztien, harrera ona Uraren Festetan. Hitz hauen bitartez neure gorazarrea lehiaketaren sortzaileei, urte zail haietan izan zuten ausardiagatik eta etorkizun-senagatik".

Informazio gehiago:

www.aytoejea.es



Ejea, 40 años de emociones

El Certamen Coral de Ejea de los Caballeros ha celebrado este año su 40 aniversario. Y lo ha hecho, como en las anteriores ediciones, lleno de energía y de buena música coral. En esta edición sin representación vasca, el Coro Oretania de Ciudad Real y el coro Santísima Trinidad de Valencia obtuvieron los premios más importantes del Certamen.

Todas las novedades introducidas en esta

40 edición, como el cambio de ubicación al polideportivo municipal y la creación de la sección de coros juveniles, han dado un resultado magnífico. Más de 3.000 personas pudieron disfrutar de la música coral desde el 9 al 11 de abril.

Los coros Oretania de Ciudad Real en la categoría adulto y Santísima Trinidad de Valencia en la juvenil obtuvieron los dos primeros premios del XL Certamen Coral. Ambos premios han sido patrocinados por el Ayuntamiento de Ejea de los Caballeros y por la Diputación Provincial de Zaragoza. Además, los de Valencia se llevaron el del público.

Cuna de éxitos para los coros vascos

Muchos coros vascos han cautivado en

numerosas ocasiones al jurado y al público de Ejea, con la obtención de primeros premios. El coro Hodeiertz de Tolosa por ejemplo ganó su primer premio precisamente en Ejea. "He vivido el Certamen de Ejea como director, como concursante, como jurado y como organizador" nos comenta Enrique Azurza, director de Hodeiertz y director artístico del Certamen Coral de Ejea, "y en todas esas facetas he disfrutado siempre del buen hacer de los organizadores, de su cordialidad y, de la buena acogida del público y de los ejeanos en general durante las Fiestas del Agua. Mi homenaje desde aquí a los fundadores del certamen por su valentía y visión en aquellos años difíciles".

Para más información:

www.aytoejea.es



Javier Busto, koru zuzendaria eta konpositorea

«Herri hau zerbait izan bada, herri korala izan da, eta tradizio hori galtzen ari gara»

Hondarribian jaio zen 1949an. Sekula ez zuen abesbatzen munduan sartzeko inolako asmorik izan; are gehiago, umetako esperientzia txar bat tarteko, koru batean berriz ez abesteko erabakia hartua zuen. Valladoliden medikuntza ikasten ari zen garaian pisukide zituenak, ordea, haiekin batera kantuan has zedin ‘burua berotzen’ hasi zitzaizkion, eta azkenean, mesede bat egitearren, baiezkoa eman zien. Koru-musikan izen handien artean dago, gaur egun, Javi Bustorena.

‘Prestakuntza musikalean autodidakta’, dio zure kurrikulumak; bat baino gehiago harrituta utziko duen datua, inondik

ere.
Txiripaz sartu nintzen koru-musikaren munduan. Unibertsitate garaian pisukide izan nituenek Ederki abesbatza sar nedin animatu ninduten. Umetan oso esperientzia txarra izana nuen parrokiako koruko fraile batekin, eta erabakia nuen ez nuela berriz abesbatza batean abestuko. Azkenean, ordea, laguntzeagatik-edo, haiekin kantuan hasi nintzen, eta hura izan zen guztiaren abiapuntua.

Ederki abesbatzaren ostean, Hondarribiko Eskifaia eta Kanta Cantemus zuzendu zenituen; zuria eta beltza, aspektu askotan behintzat...

Eskifaia koru egonkorra izan zen. 125 lagun

hasi ginen entseatzen, baina lanaren exijentzia maila igotzen joan zen heinean, jendea pixkanaka erretiratzeko joan zen. Lehiaketetan parte hartzen hasi ginen,



Javier Busto, director de coro y compositor

«Si este país ha sido algo, ha sido un país coral, y estamos perdiendo esa tradición»

Nació en Hondarribia en el año 1949. Nunca tuvo intención de meterse en el mundo coral; es más, a raíz de una mala experiencia vivida cuando era niño, había decidido no cantar más en coro. Sin embargo, los compañeros de piso que tuvo en Valladolid mientras estudiaba medicina intentaron convencerle de que comenzase a cantar con ellos, y al final, más que nada

por echarles una mano, aceptó. Hoy en día, el nombre de Javi Busto está entre los más grandes dentro de la música coral.

‘Formación musical autodidacta’, dice su extenso currículum, dato que llama la atención si continuamos leyendo hasta el final.

Entré en la música coral ‘de churro’. Durante la universidad, mis compañeros de

piso me animaron a que comenzara a cantar en el coro Ederki. De niño había tenido una muy mala experiencia con un fraile en el coro parroquial, y había decidido no cantar más en coro. Pero al final empecé a cantar con ellos por echarles una mano y salió lo que salió.

Después de Ederki llegarían el Eskifaia de Hondarribia y el Kanta Cantemus. Explíquenos lo que supuso para usted cada formación.

Europa osoan zehar bidaiatzen... 1994an utzi nuen Eskifaia, eta 1995ean sortu nuen Kanta Cantemus. Planteamendua guztiz ezberdina zen: hogeita bat urtetan zehar solfeoaren inguruko ezagutza handirik ez zuen jendearekin lan egin ondoren, solfeatzeko zekiten hogeitaz emakume nituen aurrean, abesten zekitenak, esperientziadunak, iritzia emateko eta obrak proposatzeko irizpidea bazutenak...

Hainbat sari irabazi duzu, zuzendari zein konpositore bezala; bestetik zure obrak Euskal Herriko ia

edozein abesbatzaren kontzertutan entzun litezke. Bi aintzatespen horien artean zein duzu nahiago?

Lehiaketak ez zaizkit sekula gehiegi gustatu; egiten nuen lana erabilgarri izan ote zitekeen ikusteko baliatu nituen neurri handi batean. Seguru asko, Javi Bustoren obraren artean *Ave Maria* izango da munduan gehien abesten dena. 1985ean Tolosako lehiaketan aurkeztu nuen obra hori, eta berehala baztertu zuten, “baliorik gabeko musika erromantikoa” zela argudiatuz. 86an obra arraro bat aurkeztu nuen,

lehiaketa irabazteko idatzia, eta irabazi egin nuen. 87an, beste horrenbeste. 88an ez nuen ezer aurkeztu. 89an berriz aurkeztu nintzen eta berriz irabazi nuen, eta orduan erabaki nuen ez nintzela gehiago lehiaketa batera aurkeztuko; izan ere, epaimahaia ez zen aldatzen, eta ondorioz, irizpidea ere ez. 89az geroztik ez dut obrarik aurkeztu inongo lehiaketara. Nahiago dut nire abestiak han eta hemen abes daitezten.

Euskal Herriak behar al du abesbatza profesionalik?

Orkestra profesionala beharrezkoa al da? Ez dakit. Herri honetako politikariak oso bizkorrak direla uste dut: Bilboko Korala, Donostiako Orfeoia, Iruñeko Orfeoia edukita, zertarako hasi abesbatza profesional bat egiten? Ez da behar larri bat. Zuzendari profesionalak abesbatza profesional bat nahi dute, Euskadin bi orkestra profesional dauden moduan, baina ez dakit benetan beharrezkoa den. Nork ordainduko luke laurogeita hamar abeslari dituen abesbatza profesional bat? Hori bai, orkestrarekin ere oso kritikoa izan naiz beti, ez dut uste Euskadiko Orkestra sortu zen

demasiado, los aproveché un poco para ver si lo que hacía podía ser útil. Una de las obras que probablemente más se cante de Javi Busto en el mundo es el *Ave María*. Cuando en 1985 la presenté en Tolosa la desecharon, definiéndola como “música romántica que no tenía ningún valor”. En el 86 presenté una obra rara, escrita para ganar el concurso, y lo gané. En el 87, lo mismo. En el 88 no presenté nada. En el 89 volví a presentar y volví a ganar, y fue cuando decidí no presentarme nunca más a concursos, porque el jurado era el mismo, no cambiaba, y al no cambiar el jurado, el criterio tampoco cambiaba. A partir del 89 jamás he presentado nada a ningún concurso. Prefiero que se escuchen mis canciones.

¿Necesitamos coros profesionales en el País Vasco?

¿La orquesta es necesaria? No lo sé. Creo que los políticos de este país son muy listos: teniendo la Coral de Bilbao, el Orfeón

Eskifaia fue el coro estable. Comenzamos a ensayar 125 personas, pero según comenzamos a trabajar la música con cierta exigencia, la gente fue aflojando. Empezamos a hacer concursos, recorrimos toda Europa... Lo dejé en el año 1994, y en el 95 comencé con Kanta Cantemus. Era un planteamiento diferente: después de 21 años de trabajo con gente cuyo conocimiento de solfeo era muy escaso, estaba frente a un grupo de veinte mujeres

que solfeaban, que cantaban, que tenían experiencia, con criterio para opinar y proponer obras...

Ha ganado varios premios como director y como compositor; por otra parte, sus obras pueden escucharse en los conciertos de prácticamente cualquier coro del País Vasco. ¿Cuál de esos dos reconocimientos es el que más aprecia?

Los concursos no me han gustado



bezala sortu behar zenik. Nire iritziz, une hartan egokiagoa zen zenbait irakasle kontratatzea, euren instrumentuetan oso onak zirenak eta hemengo jendea treba zezaketenak. Eta ez korrika eta presaka orkestra sinfoniko nazional bat sortu diru publikoa erabiliz. Orain funtzionatzen duela? Bai, ondo. Baina uste dut hori herri honentzat askoz garrantzitsuagoa zen beste zerbaiten kaltetan izan zela, koru-musikaren kaltetan, alegia. Herri hau zerbait izan bada herri korala izan da, eta abesbatzek, federazioaren bitartez dirua jasotzen badugu ere, asko galdu dugu kontu honekin. Abesbatzak bultzatu behar ziratekeen.

Zer esango zenuke erakundeek koru-musika bultzatzen egin beharko luketen lanari buruz?

Oso gutxi egiten dutela uste dut. Federazioari dirua ematen diote, manten dadin, baina ez dute benetan egin beharko luketena egiten. Administrazioak zerbait egin beharko luke umeez txikitatik eskolan abesten ikas dezaten, ez solfeatzen edo instrumentuak jotzen, abesten baizik. Herri

honek sekulako folklore-tradizioa izan du, eta galdu egin dugu. Eskolan egin beharko litzateke hori berreskuratzeko ahalegina, umeez ezagutu ditzatela *Hiru txito* edo *Dringilindron* bezalako abestiak, umeentzako abesti morderoa izan baitu herri honek. Umeek ikas dezatela belarriz abesten, herri honek beti egin izan duen bezala, pianorik edo txirularik gabe.

Eta zure ustez zergatik ez da horrelakorik egiten?

Nire iritziz, horretarako dirurik behar ez izatea da ez egitearen arrazoia. Ume batek abesten ikas dezan 45 koaderno, 350 margo eta nik ez dakit zer gehiago erosi beharko balu, egingo litzateke, seguru. Baina hamar haur lurtean eserarazi eta haiei abesten irakastea oso merkea da. Eta arazoa hortxe dagoela uste dut. Zergatik erakusten da marrazketa? Zenbat diru gastatzen dute familiek marrazketarako materiala erosten? Azken finean, tartean dirua dagoenez, egiten da. Abesten, ordea, dirurik gabe erakuts liteke. Gero solfeoa eta gainontzekoak ikasi nahi dituela? Hori beste kontu bat da. Baina

txikitatik abesten erakusten badiozu, musika maitatzen eta eta musikarekin gozatzen erakusten badiozu, gero musikari izan nahi duenak aurrera jarraituko du,



¿Y por qué no se hace algo así?

En mi opinión, porque no hay dinero de por medio. Si para aprender a cantar un niño tuviera que comprar 45 cuadernos, 350 lápices de colores y no sé qué más, seguro que se haría. Pero claro, sentar a diez niños en el suelo con una persona que les enseñe a cantar una canción es barato. Y, para mí, ahí está el problema. ¿Por qué se enseña dibujo? ¿Cuánto gastan las familias en material para dibujo? Al final es dinero, y como hay dinero, se hace. La música se podría hacer sin dinero. ¿Que luego el niño quiere estudiar solfeo y lo demás? Eso es otra cosa. Pero si tú le educas a cantar desde pequeño, le enseñas a tener gusto por la música, le invitas a disfrutar de la música, el que quiera ser músico será músico, y el que no, no, pero habrá recibido esa

